

## OHARRA- UNIBERTSITATE-GHEE BATZORDEA

### Nota- Comisión Universidades- CEESPV

Kaixo Elkargokide!

Gizarte Hezitzileen Euskadiko Elkargoak Euskal Herrian Gizarte Hezkuntzako graduua ematen duten unibertsitate guztiekin – Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustoko Unibertsitatea (bai Donostian, bai Bilbon)- batera bultzatu duen batzordearen berri eman nahi dizuegu.

Batzorde honetan, elkargoko hiru gizarte-hezitzailen hartzentute parte, baita Euskal Herriko Unibertsitatearen aldetik, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko gizarte-hezkuntzako graduuko zuzendariak eta lau irakaslek eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko graduuko zuzendariak eta irakasle batek; eta, azkenik, Deustuko Unibertsitatearen aldetik, Donostiako eta Bilboko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko gizarte-hezkuntzako graduuko zuzendariak, koordinatzaileak eta hiru irakaslek.

Batzordearen helburua lan-eremu tekniko bat sortzea da, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko profesionalek eta unibertsitateko irakasleek osatua, lanbidea garatzeko ekarpen zientifikoa ahalbidetzeko.

Bilera ugari egin dira hasieratik (21.11.15-22.01.17-22.03.16-22.05.04-22.06.15-22.09.28-22.11.16), guztiak telematikoki, eta hainbat gai landu dira.

Hasiera batean, batzordearen lana, funtsean, kezka handia duen gai bati aurre egiteko, indarrak eta irizpideak bateratzean zentratu da, hau da, gizarte-hezitzileen berezko zereginak eta funtziak definituak dituzten lanpostuak betetzenko beste lanbide-profil batzuk (gainera unibertsitate ikasketakoak ez direnak) sartzearekin lotutakoa hain zuzen ere. Egoera horren aurrean, batzorde honek gutun bat idatzi du gizarte-zerbitzuen sistemako administrazio publiko guztientzat (Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), egoera honen inguruko kezka adierazteko eta beraiek kudeatzen dituzten zerbitzuetako oinarrieta lanbide-profila zehazteko orientabideak emateko, elkargoan jada landutakoekin batera.

Zeregin horren ondoren, batzordearen zentzia eta helburuak finkatu genituen eta holako espazio batetik landu zitezkeen gaiak zehaztu ziren, ondorengoetan aurrera egiteko asmoz:lanbide-profilaren definizioa eta jarraipena lizitazio publikoetan, esku hartzeko hainbat eremuren inguruko lantaldeak aktibatzea eta gizarte-hezkuntzaren hasierako prestakuntzaren eta lanbide-errealtitatearen azterketa

Gai hauetatik, aurten lantalde espezifiko bat planteatu da “Gizarte Hezkuntzaren hasierako prestakuntzaren eta errealtitate profesionalaren azterketari” heltzeko, bileretan sortu diren zenbait galderari erantzuteko asmoz (Non ari gara gure lan profesionala egiten gizarte-hezitzialeok Euskadin?, Non ez gaude eta egon beharko genuke?, Zertan?, Zer hobekuntza egin beharko lirateke hasierako prestakuntzan?...) eta horri buruz emango dizuegu eman beharreko urratzen berri.

Kaixo elkargokide!

Queremos informaros de la comisión que se ha impulsado desde el colegio con todas las universidades que imparten el grado de educación social en el País Vasco- Universidad del País Vasco (EHU) y Universidad de Deusto- tanto en Donostia como Bilbao, en la que participan tres educadores/as sociales del Colegio, por parte de la Universidad del País Vasco el director del grado de educación social y cuatro profesores/as de la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología y la directora del grado y un profesor de la Facultad de Educación de Bilbao y por último de la Universidad de Deusto la directora, coordinadora y tres profesoras/es del grado de educación social de la Facultad de Educación y Deporte tanto de Donostia como Bilbao.

La comisión tiene el objetivo de generar un espacio de trabajo de carácter técnico, formado por profesionales de la intervención socioeducativa y profesorado universitario, que posibilite el aporte científico para el desarrollo de la profesión.

Se han realizado numerosas reuniones desde su inicio (15.11.21-17.01.22-16.03.22-4.05.22-15.06.22-28.09.22-16.11.22), todas ellas de manera telemática y se han ido trabajando diferentes temas.

En un inicio el trabajo de la comisión se centro fundamentalmente en aunar fuerzas y criterio para hacer frente a un tema de gran preocupación para la profesión relacionado con la intromisión de otros perfiles profesionales, incluso no universitarios, para el desempeño de puestos de trabajo que requieren tareas y funciones propias de los y las educadores/as sociales. Ante esta situación se redactó una carta dirigida a todas las administraciones públicas del sistema de servicios sociales (Ayuntamientos, Diputaciones y Gobierno Vasco) responsables de la contratación de los servicios para señalar esta situación y aportar orientaciones para la definición del perfil profesional junto a las ya elaboradas desde el colegio.

Posterior a esta tarea se abordó el sentido y objeto de la comisión así como los temas de interés que podían ser susceptibles de abordar desde este espacio: seguimiento de la definición del perfil profesional en las licitaciones públicas, activación de grupos de trabajo en torno a diferentes ámbitos de intervención y el análisis de la formación inicial y realidad profesional de la educación social

Para este año se ha planteado un grupo de trabajo específico para abordar el “análisis de la formación inicial y realidad profesional de la Educación Social” con el ánimo de responder a ciertos interrogantes que han surgido en las reuniones (¿Dónde estamos desarrollando nuestra labor profesional los y las educadoras sociales en Euskadi?, ¿Dónde no estamos y deberíamos de estar?, ¿haciendo qué?, ¿Qué mejoras serían necesarias en la formación inicial?...) y sobre el cual os iremos informando de los pasos a dar.

Besarkada haundia eta ondo segi

Unibertsitate- GHEE Batzordea